



◆ TXANTXANGORRI San Silvestre tiraldia, gaur

Urtero bezala, San Silvestre plater tiraldia izango da gaur. Izen-ematea goizeko 10:00etatik 11:30etara bitartean egin ahal izango da, 15 eurotan. Tiraldia bukatuta, sari banaketa eta luntxa izango dira. Santa Barbarako tiro zelaian egingo den azken tiraldia izango da, itxi egingo baita. ||

GABONETAKO EKINTZAK

Urte zaharreko erronda, urtea bukatzeko

Ohitura Zaharrak abesbatza urte zaharreko errondan aterako da gaur, 17:30etan Plazatik. Urtea bukatzeko, beste hainbat ekintza ere izan dira egun hauetan. Bereziki, musika izan da jaun eta jabe.

GAURKOA da 2012 urteko azken eguna, eta urtea behar bezala agurtzeko, ez da falta urteroko zita. Ohitura Zaharrak abesbatzak bertso, koplak eta kantua kantatuko ditu gaur, 17:30etan Plazatik abiatuta. Trikitilariak izango dituzte lagun, eta Kaxkoan barrena ibiliko dira.

Abiatu baino ordu laurden lehenago, 17:15etan, jarri dute elkartzeko zita, udal-teko arkupeetan.

Festa, Goiz Eguzkin eta Karboneran ere

Urtea bukatzeko, ordutegi berezia izango da gaur Goiz Eguzkin; 15:00etatik 18:30etara irekiko dute. Karboneran berriz, festa izango da gaur gauean, mozorro eta DJekin.

Urtea hasteko berriz, bai-lea izango da bihar Goiz Eguzkin, 17:30etatik aurrera.

Bertso jaialdia

Bertsolatarekin bukatzeko ez da asko falta. Larunbateko emanaldi gozo eta txispaz betearen atzetik, Bertso jaialdia izango da ostiralean, 19:30etan Biterin, punta-puntako bertsolariekin. ||



❖ MUSIKA EMANALDIAK Ozenki Kixkalen; txistulariak Plazan

Ozenki abesbatza jo eta ke lanean ari da Gabon hauetan. Lehengo ostegunean Kixkalen eman zuen kontzertua, eta leporaino bete zen taberna. Atzo berriz, Musika Eskolako txistulariek kontzertua eman zuten arkupeetan. Beste herrialdeetako Gabon doinuak ere jo zituzten. ||



❖ BERTSOLATA

Soziedadeak eta Biteri bertsotan blai

Bertsolatako egitarauaren barruan, ostiralean Soziedadeak Bertsotan aritu ziren, eta Mendiluze izan zen garaile, Etxeberri elkarteak ordezkaturik. Larunbatean bestalde, 'Historiaren hari zahar horri...', bertso musikatuaren emanaldia estreinatu zuten, Eñaut Agirrek, Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak. ||



❖ HERRIRA

Martutenera martxa

Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzeko aldarrikatzeko, Martuteneko kartzelara martxa egingo da gaur, goizeko 11:00etan Astigarragako Gruas Alonso paretik abiatuta. ||

❖ PORTU AUZOA

Tirolina saltoak eta mendiko saioak

Gabonetarako prestatutako egitarauaren barruan, tirolina saltoak eta mendiko saioak egiteko aukera izango da asteazkenean, arratsaldeko 17:30etatik aurrera Portu auzoan. ||

❖ GIBELALDE

Zine proiektzioa, ostegunean

Haurrentzako zine proiektzioa izango da ostegunean, arratsaldeko 17:00etan Gibelalde elkartearen lokalean (Larramendi, 11). Lurrean eseritzeko kojina eramateko eskatu dute. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

Lan eguna, ostegunean

Hernaniko Gazte Asanbladak lan eguna jarri du ostegunerako. Goizeko 10:00etatik aurrera, Gaztetxea garbitu eta txukuntzera azaltzeko deia egin diete herriko gazte guztiei. ||



RIOJA TABERNA

APARTEKO GIROA

2012. urtea ere pasa zaigu,
Urte Berri On guztioi!

Kale Nagusia, 6

TTILIN *
* TOLON *
BELAR DENDA
TERAPIA NATURALAK
KONTSULTAK
943 55 56 94
Txirrita, 10 - HERNANI

YGALDETXXO
jatetxea
Baskariak
eta Afariak
Ereñozu auzoa 20120 Hernani (Gipuzkoa) Tel: 943 55 01 40

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauetz:** **Etxebeste** Elcano 9 - 943 552087

EGURALDIA **GAUR** Hego-haizea ibiliko da, eta arratsalderako bolada gogorak espero dira. Ondorioz, tenperatura igoko da. Gauerako, lainoak eta euria. Min.8°/Max.16°
BIHAR Txarrera egingo du, nabarmen. Fronte batek euria ekarriko du, eta zaparradak espero dira egun osoan. Tenperatura jaitsi egingo da. Elurkota: 1.300m. Min.8°/Max.13° (euskaime)

PALA Hernaniarrak indartsu, Emakumea Pilotari eta Napar Txapelketan

Emakumea Pilotari txapelketan garaipena lortu du Tijerok, 2garren mailan. Napar Txapelketan, Irazustabarrena izan da txapelduna.

EMAKUMEA Pilotari txapelketako finala jokatu zen larunbatean Atano IIIan. Lehenengo mailan, Eli Pagola hernaniarrak irabazi zuen, Maider Mendizabalekin batean, Miren Goikoetxea hernaniarraren eta Arozenaren aurka, 30-28. Bigarren mailan berriz, Garbiñe Tijero hernaniarrak irabazi zuen, Errastirekin batean, Eneritz Perez hernaniarraren eta Etxegiaren aurka, 30-23.



Eneritz Perez, Garbiñe Tijero, Eli Pagola eta Miren Goikoetxea, Emakumea Pilotari Txapelketan jokatu ondorenean.

Napar Txapelketa

Euskal Herriko palista onenak elkartu ziren atzo, Iruñeko Labrit pelotalekuan. Tartearen ziren, Irazustabarrena, Miren Goikoetxea eta Maider Senper hernaniarrak.

Irazustabarrenak 30-28 irabazi zuen, Arozenarekin batean, Y. Aristorena eta Ruiz de Laramendiren aurka, elite mailan. Lehenengo mailan berriz, Senper eta Goikoetxea jubenilek galdu egin zuten, 21-30, Garmendia eta S. Aristorenaren aurka. II

berriz, Senper eta Goikoetxea jubenilek galdu egin zuten, 21-30, Garmendia eta S. Aristorenaren aurka. II

◆ FUTBOLA - JOXEAN ARABIATORRE I.TXAPELKETA



2garren postua Hernanirentzat. Joxean Arabiatorre Txapelketako lehenengo edizioa jokatu zen atzo, Zubipen. Infantil mailako 12 neska talde aritu ziren jokatzeko: Hernaniko 3, Zumaiako-ko 2, Añorgako 2, Tolosako 2, eta Ordizi, Zarautz eta Urrietako bana. Hernaniko 3 taldeak primeran aritu ziren, baina bereziki, Hernani A taldea. Finalera iritsi ziren, eta Tolosaren aurka jokatu zuten. Azkenean, 2garren postuan geratu ziren. Jokalari Onenari Saria ere Tolosako Nereari eman zioten. Hernaniko Jokalari Onenari saria berriz, Naroak jaso zuen (ezkerretik hasita, 4garrena). Arabiatorreri ere sari bat eman zioten (argazkian, erdian) omenaldi bezala, nesken taldea sortu zenetik delegatu izan delako. II

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

ERREMONTA		ESKU PELOTA - Gipuzkoako Trinkete Txapelketa	
1go partidua	Etxebarri II-Alzapan III/Mabin VI-Zubiñe	35-22	Senkomak 1go m. Iritzi San Sebastian/Urbil
2. partidua	Ranz Bar. Masoena	24-30	Senkomak 1go m. Añor Lopez/Tipe
3. partidua	Etxebarri III/Urtza-Urtza	40-33	Senkomak 2. m. Iñaki Canal/Real Sociedad 1
3. partidua	Etxebarri IV-Zubizarreta/Oñate-Agimena	30-17	Senkomak 2. m. Aritz Murgiondo/Real Sociedad 2
FUTBOLA - XXXIX. Labaien Memoria		Jubenilek Iñaki Sanchez/Urriola 35-EA	
1go partidua	Real Sociedad-Lengoaik	0-1	Jubenilek Aigo Arizkorreta/Oiarpe 32-35
2. partidua	Real Sociedad-Hernani	0-1	Jubenilek Egoitz Altuna/Intza 35-25
3. partidua	Hernani-Lengoaik	2-1	Kadeteak Iker Lakortz/Oiarpe 1 6-30
PALA - Emakumez Pilotari Txapelketako finalak		Kadeteak Sotami Rodriguez/Oiarpe 2 30-4	
1go maila	Pagola-Mendizabale/Goikoetxea-Arozena	30-28	PALA - Napar Txapelketa
2. maila	Etxegi-Perez/Tijero-Erasti	23-30	Elite maila Irazustabarrena-Arozena/Aristorena R. Laramendi 30-26
			1go maila Goikoetxea-Senper/Garmendia-Aristorena 21-30

◆ ESKU PELOTA-GIPUZKOAKO TRINKETE TXAPELKETA 7 pelotari, azken fasea jokatzeko sailkatuta

Emaitza onekin agurtuko dute urtea pelotari hernaniarrek, 6 garai-pen lortuta eta 3 partidua galduta. Rodriguez eta Cisneros kadeteek finalerdiak jokatzeko pasea lortu dute; jubeniletan, Altuna, Arizkorreta eta Bandres finalaurdenetara pasa dira; eta 2garren mailako seniorretan, Esnal eta Murgiondok final zortzirenak jokatuko dituzte. Senior 1go mailan ordea, Lopez eta San Sebastianek ez dute azken fasera pasatzerik lortu, eta datorren asteko partiduan dena eman beharko dute, kategorian mantentzeko. II

◆ ERREMONTA-BURUZ BURUKO III.MASTERRA Txapelduna eta txapela askoduna, aurrez aurre gaur

Ezkurak 11 aldiz jantzi du dagoeneko Buruz Buruko txapela, eta Urriza da aurtengo banakako eta binakako txapelduna. Gaur, Buruz Buruko III.Masterreko finalerdian, aurrez aurre jokatuko dute biek. Irabazleak finala jokatuko du urtarrilaren 5ean, San Miguelen aurka. Gaur, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, beste 3 partidua ere jokatuko dira: Otaegi-Labaka/Ezkurra II-Aizpuru III; Juaristi-Barrenetxea IV/Urtasun-Ion; eta Matxin III-Urko/Etxabe II /Aizpuru II. II

◆ HERNANI BHI INSTITUTUA - IKASTAROK Bost ikastaro hasiko dira urtarrilean

Langile eta langabetuentzako 5 ikastaro emango dira Institutuko Karmelo Labaka eraikinean, urtarrilean hasita, doan. Urtarrilaren 7an hasiko dira Txirbil harroketaren bidezko mekanizazioarako CNC programak, eta Instalazio elektrikoaren muntaiak eta mantenuak lan eta ingurumen arriskuen prebentzioa ikastaroak. Urtarrilaren 14an hasiko da Fabrikazio mekanikoko produktuaren dokumentu teknikoaren prestaketa CAD-CAM programen bidez ikastaroa. Urtarrilaren 22an hasiko dena da Automatismo elektrikoaren muntaiak eta konponketak. Azkenik, urtarrilaren 23an hasiko da Barneko instalazio elektrikoaren muntaiak eta mantenua ikastaroa. Ikastaroak astelehenetik ostegunera emango dira, 17:30etatik 20:30etara edo 21:00etara. Izena emateko: karmelolabaka@hernanibhi.com edo 943 55 19 58. Informazioa gehiago: www.hernanibhi.com. II

◆ INGURUMENA

Zuhaitz-mozketa, Urumea ertzean

Urumea ibaiaren eskubi aldean dauden 24 platano zuhaitz moztuko ditu Ur Agentzia, ibai ertzetako landaretzaren kalitatea hobetzeko asmoz. Izan ere, zuhaitz hauek aloktonoak dira eta inbadi-tzaileak dira. Zuhaitz hauek kenduta, bertako espezieak diren 100 zuhaitz landatuko dira, tartean, sahasa, haltza eta lizarra. Lanak urtarrilaren 2an hasiko dira. II

◆ SAN JOAN KONPARTSA

Saria jasotzeko azken eguna

Santo Tomas egunean errifan zozketa egin zuen San Joan Konpartsa. Zerbaki irabazlea da 0129, eta gaurkoa da saria jasotzeko azken eguna. Irabazleak telefono honetara deitu behar du: 695 753 138. II

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)